Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko abenduaren 20a, asteazkena — 241 — Miércoles, a 20 de diciembre de 2017

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Aizarnazabalgo HAPOri dagokion ingurumen adierazpen estrategikoa.*

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako departamentuko foru diputatuak, 2017ko abenduaren 1eko datarekin, ondoren argitaratzen den Foru Agindua eman zuen:

«1. *Aurrekariak.*

2014ko maiatzaren 30eko idatziaren bidez, Aizarnazabalgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hiri Antolamendu Departamentuari eskatu zion igor zezan Hiri Antolamendu Plan Orokorraren –aurrerantzean HAPO– erreferentziazko dokumentua. Horretarako, idatziarekin batera bidali ziren HAPOaren aurrerapena eta 211/2012 Dekretuaren 8. artikuluan xedatutako hasiera dokumentua.

2014ko irailaren 11an, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzak erreferentzia dokumentua igorri zuen.

2014ko abenduaren 17an, Aizarnazabalgo Udaleko osoko bilkurak hasierako onespena eman zion HAPOari, eta erakusketa publikoko prozesu bat abiatu zuen. Partaidetza prozesu horren ondorioz, Udalak zenbait aldaketa egin zituen, hasieran aurreikusitako egiturazko antolamendua eraldatzen zutenak, hala nola zoru industriala areagotzen dagoeneko existitzen ziren jarduera industrial batzuk hedatu ahal izateko. Horrenbestez, hasierako onespen dokumentu berri bat idazten hasi zen, «Hasierako onespen dokumentua II» izenekoa; osoko bilkurak 2016ko abuztuaren 31n onetsi zuen, eta berriz jarri zen informazio publikoan.

Horiek horrela, 2016ko irailaren 12an, 211/2012 Dekretuaren 14. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Aizarnazabalgo Udalak Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari bidali zion «Hasierako onespen dokumentua II» izeneko dokumentua, hark adieraz zezan HAPOari egindako aldaketek ingurumenean eragin nabarmenak izan ote zitzaketen. 2017ko otsailaren 6ko ebazpenean, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak adierazi zuen jatorrizko hasierako onespen dokumentuari egindako aldaketek eragin nabarmena zutela ingurumenean. Horrez gain, ikusita, alde batetik, zein mailatan txertatu ziren erreferentzia dokumentuan eskatutako edukiak eta analisiak «Hasierako onespen dokumentua II» izeneko dokumentuan, eta, bestetik, bertan aurrerapenaren inguruan egindako antolamendu aldaketak, erabaki zen zenbait eduki berri erantsi behar zitzaizkiola ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenari.

Azkenik, 2017ko abuztuaren 10ean, Aizarnazabalgo Udalak administrazio espedientearen kopia bat eta HAPOaren hasierako onespenaren dokumentazioa bidali zituen, 2013ko abenduaren 9ko ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 25. artikuluko ingurumen adierazpen estrategikoa igor zedin, 211/2012 Dekretuaren 13. artikuluan ingurumen memoria izena ere jasotzen duena. Azken horrek honako hauek hartzen ditu barne: memoria bat, ingurumen jasangarritasunari buruzko

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Declaración ambiental estratégica respecto al PGOU de Aizarnazabal.*

El Diputado Foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas ha dictado con fecha 1 de diciembre de 2017 la Orden Foral que a continuación se publica:

«1. *Antecedentes.*

Mediante escrito del 30 de mayo de 2014, el ayuntamiento de Aizarnazabal solicitó al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa la emisión del documento de referencia del Plan General de Ordenación Urbana del municipio –PGOU en adelante–. A este efecto, junto con el escrito se remitió el avance del PGOU y el documento de inicio establecido en el artículo 8 del Decreto 211/2012.

Con fecha 11 de septiembre de 2014, la Dirección de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas emitió el documento de referencia.

El 17 de diciembre de 2014, el Pleno Municipal de Aizarnazabal aprobó inicialmente el PGOU e inició un proceso de exposición pública. Como resultado de dicho proceso participativo, el ayuntamiento incorporó algunas modificaciones que alteraban la ordenación estructural inicialmente prevista, tales como incrementar el suelo industrial para permitir la ampliación de algunas actividades industriales existentes. En consecuencia, se procedió a redactar un nuevo documento de aprobación inicial al que se denominó «Documento de aprobación inicial II» y que fue aprobado por el pleno el 31 de agosto de 2016 y sometido a nueva información pública.

Asimismo, el 12 de septiembre de 2016, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 14 del Decreto 211/2012, el ayuntamiento de Aizarnazabal remitió el «Documento de aprobación inicial II» a la Dirección General de Medio Ambiente, para que informara, si las modificaciones introducidas en el PGOU, podían tener efectos significativos en el medio ambiente. En resolución emitida el 6 de febrero de 2017, la Dirección General de Medio Ambiente estimó que, las modificaciones introducidas en el documento de aprobación inicial original, tenían efectos significativos en el medio ambiente. Además, a la vista, tanto del grado de incorporación en el «Documento de aprobación inicial II» de los contenidos y análisis solicitados en el documento de referencia, como de las modificaciones de ordenación introducidas en el mismo respecto al avance, se estableció la necesidad de incorporar una serie de nuevos contenidos en el informe de sostenibilidad ambiental –ISA en adelante–.

Finalmente, con fecha 10 de agosto de 2017, el ayuntamiento de Aizarnazabal remite para la emisión de la declaración ambiental estratégica del artículo 25 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, también denominada memoria ambiental en el artículo 13 del Decreto 211/2012, una copia del expediente administrativo y la documentación de aprobación provisional del PGOU. Esta última consta de: una memoria que incluye el ISA y un estudio de impacto acústico, las


EK\CV GAO-I-2017-08637

txostena eta inpaktu akustikoa jasotzen dituena; hirigintza arau orokorrak eta partikularrak; ikerketa ekonomikoa; ondare katalogoa; eta dagozkion informazio eta antolamendu planoak.

*2. Ingurumen alderdiak planeko proposamenean nola txertatu diren balioestea.*

Jasangarritasun txostena Aizarnazabalgo HAPOko «Memoria» izena duen I dokumentuaren parte da; dokumentu horri izaera soilik informatiboa eman zaio «Hirigintza Arau Orokorren» 3. artikuluan. Baina, beste alde batetik, 2.1 dokumentuan, Hirigintza Arau Orokorrak izenekoan, babes neurriak eta neurri zuzentzailean ezarri dira atal batzuetan, esaterako, 6. idazpuruan (Ingurumenaren, paisaiaren eta naturaren babeserako arauak) edo proposatutako zoru urbanizaezineko erabileren eta jardueren antolamenduan, haien balioak babestekoan. Neurri horiek ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenetik eratorriak dira sarri, baina ingurumen dokumentuan diseinatutakoak guztiz txertatu izanaren falta sumatzen da.

Halaber, Hirigintza Arau Orokor horietan obren fasearen zaintza programa bat txertatu da, baina falta dira ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenean proposatutako kontrolak, udal mugarteko ingurumen kalitatearen alderdi nabarmenen epe luzeko jarraipena egitekoak.

Azkenik, Hirigintza Arau Orokorren 79. artikuluan –Garapen planetarako zehaztapenak– honako hau xedatu da: «zoru urbanizagarriko eremuen plan partzialek eta urbanizazio proiektuek jaso beharko dituzte ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuko azterketan aurreikusitako babes neurri guztiak eta ikuskapen programa», eta, Hirigintza Arau Partikularretan, HAPOko jarduketa alor bakoitzerako diseinatutako neurri zuzentzaileak ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenean txertatu dira.

Alde batera utzita ingurumenari buruzko alderdiak HAPOaren dokumentazioan bertan txertatzea, kontuan hartu dira jasangarritasunaren inguruko zenbait irizpide planak azkenean proposatzen eta hartzen duen hiri eredua lantzeko orduan.

Horiek horrela, planteatutako egoitza garapen berriak dagoeneko urbanizatutako zoruen mugakide diren zoruetan kokatuta daude, eta, nahiz eta eskaintzak gainditzen duen Urola Kostako LPPn ezarritakoa, garapen horietako gehienak aurreko arau subsidiarioetan txertatuta zeuden baina azkenik abiarazi ez ziren proposamenei dagozkie. Horrenbestez, egoitza garapenek gaurko landa lurzoruaren % 0,47ko artifizializazioa dakarte. Alternatiben fasean erabilitako irizpideetako bat izan da minimizatzea Nekazaritza eta Basozaintzako LPSk balio estrategiko handiko lurzoru gisa sailkatu dituen lurzoruei eragindako afekzioak; horren ondorioz, azkenean, mota horretako lurzoruen 1,3 hektareak soilik jasan dute inpakturen bat.

Horrez gain, egoitza eremuetako bik, HE2 Txantil Soroa eta HE3 Odriozola eremuek, barne hartzen dute herrigunea inguratzen duten bide alternatiboen sorrera; horri esker, herriguneko eremu zentralean edo plaza nagusian trafikoa arindu ahal izango da, baita herrigunea zeharkatzen duten gainerako barne bideetan ere. Gainera, HE2 Txantil Soroa eremuaren kasuan, proposatu da zuhaiztiei eragindako afekzioak (700 $m^2$) konpentsatzea eremu libreetan bertako zuhaitz espezieak landatuz. Azkenik, eraikuntzarako gutxieneko efizientzia energetikoko irizpideak ezarri dira kontsolidatutako hiri lurzoruetako egoitzen birgaitze eremuetan eta eraikuntza berriko eremuetan, eta eraikigarritasun bonusen aukera ezarri da efizientzia energetikoaren maila horiek gainditzen badira, eta zigorrena, haietara iristen ez bada.

Planteatutako garapen industrialei dagokienez, horiek ere dagoeneko daudenen mugakide dira, dagoeneko abian dauden jardueren hedapenak baitira. Orokorrean, proposamen txikiak dira, HE10 Paper fabrika salbu; bertan, gaurko paper fabrikaren beharrei erantzuna emateko 32.383 $m^2$-ko sektore urbanizagarri berri bat sortu da, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSn oso-

normas urbanísticas generales y particulares, el estudio económico, el catálogo de patrimonio y los correspondientes planos de información y ordenación.

*2. Valoración de la integración de los aspectos ambientales en la propuesta del plan.*

El informe de sostenibilidad forma parte integrante del documento I «Memoria» del PGOU de Aizarnazabal, documento al que sólo se le da un carácter informativo en el artículo 3 de las «Normas Urbanísticas Generales». Pero, por otra parte, dentro del documento 2.1 «Normas Urbanísticas Generales», se introducen medidas protectoras y correctoras en alguno de sus apartados, tales como el título Sexto (Normas de Protección Ambiental, Paisajística y Natural), o la ordenación propuesta de usos y actividades en el suelo no urbanizable para proteger sus valores. Estas medidas proceden en muchos casos del ISA, aunque se echa en falta una incorporación total de las diseñadas en el documento ambiental.

Asimismo, se introduce en dichas «Normas Urbanísticas Generales» un programa de vigilancia para la fase de obras, aunque faltan los controles propuestos en el ISA para el seguimiento a largo plazo de los aspectos más significativos de la calidad ambiental en el término municipal.

Finalmente, en el artículo 79 Determinaciones para los planes de desarrollo de las «Normas Urbanísticas Generales», se establece, que «Los planes parciales y los proyectos de urbanización de los ámbitos de suelo urbanizable deberán recoger todas las medidas protectoras y el programa de supervisión previstos en Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental», y en las Normas Urbanísticas particulares, se incorporan las medidas correctoras diseñadas para cada ámbito de actuación del PGOU en el ISA.

Dejando aparte la incorporación de los aspectos ambientales en la propia documentación del PGOU, se han tenido en cuenta una serie de criterios de sostenibilidad a la hora de abordar el modelo de ciudad que propone y adopta finalmente el plan.

Así, los nuevos desarrollos residenciales planteados se ubican en suelos colindantes a los ya urbanizados y, aunque la oferta supera lo establecido en el PTP de Urola Costa, corresponden mayoritariamente a propuestas que ya habían sido incorporadas en las anteriores NNSS pero no se terminaron de poner en marcha. En consecuencia, los desarrollos residenciales suponen la artificialización de un 0,47 % del total del suelo rural actual. La minimización de la afección a suelos que el PTS Agroforestal clasifica como de alto valor estratégico ha sido uno de los criterios utilizados durante la fase de alternativas, de tal forma que, al final, solo se impacta sobre aproximadamente 1,3 ha de este tipo de suelo.

Por otra parte, dos de las áreas residenciales, AU2 Txantil Soroa y AU 3 Odriozola, incluyen la creación de viarios alternativos que rodean el casco urbano, lo que permitirá la liberación del tráfico en el espacio central o plaza principal del núcleo urbano, así como en el resto de los viarios internos que atraviesan el casco urbano. Además, en el caso del AU2 Txantil Soroa, se propone la compensación de afecciones a vegetación arbolada (700 $m^2$) mediante la plantación de especies arboladas autóctonas en espacios libres. Finalmente, tanto en las áreas de rehabilitación residencial en suelo urbano consolidado como en las de nueva edificación se imponen unos criterios de eficiencia energética mínima en la edificación y, se establece la posibilidad de bonus de edificabilidad en el caso de que dichos niveles de eficiencia energética sean superados o de penalizaciones en el caso de no alcanzarse los mismos.

En cuanto a los desarrollos industriales planteados, son también colindantes a las áreas ya existentes, dado que son ampliaciones de actividades ya en funcionamiento. En general son propuestas de poca entidad, si exceptuamos el AU 10 Papelera donde, para responder a las necesidades de la actual papelera, se crea un nuevo sector urbanizable de 32.383 $m^2$ en suelo con-


EK\CV GAO-I-2017-08637

rik balio estrategiko handiko lurzoru gisa sailkatutako lurzoruan. Lurzoru industrialaren eskaintza mugatua den arren, komenigarria zatekeen HAPOaren dokumentazioan txertatu izana hedapen horiek onartzeko egiazko beharraren justifikazio xeheagoa.

Edozein kasutan, babes neurriak eta neurri zuzentzaileak diseinatu dira garapen industrialetarako, besteak beste, eragindako eremuen arriskuak minimizatzeko batzuk, kutsatuta egon litezkeen lurzoruen presentzia edo uholde arriskua kasu. Horrez gain, ezarri da ingurumena eta paisaia leheneratzeko programak izateko betebeharra, zeinei jarraikiz leheneratu beharko litzateke erriberako landaredia, kalterik jasanez gero. Azkenik, HE7 Etxezarreta eta HE10 Paper fabrika eremuetan bidegorri bat eraikitzeko aukera ikusi da, mugikortasun jasangarria indartze aldera.

*3. Ingurumen jasangarritasunari buruzko txostena eta egin den ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoa balioestea.*

2017ko otsailaren 6an Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzak emandako ebazpenak, bigarren hasierako onespen dokumentuaren ingurumen ebaluazioari buruzkoak, ezarri zuen 2016ko uztaileko 1.2 dokumentuak, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoak izenekoak, bazituela 211/2012 Dekretuen eskatutako atalak. Dena den, gaineratu zuen erreferentzia dokumentuak eskatutako alderdi eta analisi gehienak zituen arren, bazituela zenbait gabezia ere alderdi jakin batzuetan; azken horiek ebazpenaren azken atalean zehaztu ziren, konpondu zitezen.

Orain bidalitako HAPOaren behin behineko onespen dokumentuak jasotzen du 1.2 Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa dokumentu berri bat, 2017ko apirilekoa. Dokumentu hori aztertu da egiaztatzeko bertako edukiak konpondu dituela Zuzendaritzaren aurreko ebazpenean nabarmendu zituen gabeziak.

Analisi horren ondoren, honako hau adierazi behar da:

— HAPOan ezarritako egoitza ahalmenaren justifikazioa. Behin behineko onespen dokumentuak apur bat gainditzen du Hasierako onespen dokumentua IIn proposatutako egoitza eskaintza: 120 etxebizitzatik 126ra handitzen da, baina eraginak jasango dituzten hirigintza eremuak mantendu egiten ditu. Eskaintza horren justifikazioa ez da oinarritzen datu demografikoetan eta eskari datuetan, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzaren ebazpenak eskatu bezala, baizik eta gaineko plangintzan ezarritako zehaztapenetan –2016ko urtarrileko 4/2016 Dekretua, zeinaren bidez eraldatzen diren Urola Kostako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak eta LPP–. Horiek horrela, argudiatu da gain hartzeko modukoa iritzi dakiokeela, nahiz eta proposatutako kopurua Urola Kostako LPPn ezarritako 100 etxebizitzena baino altuagoa den, LPP hori Urola Kostako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak eraldatzeko 4/2016 Dekretura egokitzen denean etxebizitzen eskaintza 172 etxebizitzara igo beharko duelako, hori baita Aizarnazabalerako dekretu horrek zehazten duena. Horrez gain, gaineratu du kontuan izan behar dela indarrean dagoen plangintzak 121 etxebizitza berri zehazten zituela, horietako askok bat egiten dutela HAPOan zehaztutakoekin, eta batzuk aspalditik aurreikusita zeudela, hala nola Zubialdeko barne eraberritzeko plan berezia, eta, horrenbestez, zentzuzkoa dela Urola Kostako LPPn ezarritakoaren igoera hori, ez baitakar lurzoruaren sailkapen berririk, baizik eta dagoeneko klasifikatuaren birdefinizioa.

— Egoitza garapenen jasangarritasun irizpideak. Egoitza eremu nagusien (HE2 Txantil Soroa eta HE3 Odriozola) antolamendu xehatua HAPOan bertan zehaztuta dagoenez, ez da egongo Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzak planteatutako alternatiben analisia egin ahal izango duen garapen planik. Proiektuen exekuziorako lehentasunezko hurrenkerari dagokionez, 36. artikuluan ezarri da –Urbanizazio lanak exekutatzeko proiektuen formulazio erregimena– HE2 Txantil Soroak lehentasuna duela beste sektoreen aldean. Dena den, lehenespen hori ez da absolutua, beranduago gaineratu baita

siderado en su totalidad de alto valor estratégico en el PTS Agroforestal. A pesar de lo limitado de la nueva oferta de suelo industrial, hubiera sido conveniente que, en la documentación del PGOU, se hubiera incorporado una justificación más detallada de la verdadera necesidad de admitir estas ampliaciones.

En cualquier caso, se han diseñado medidas protectoras y correctoras para los desarrollos industriales, entre otras, algunas para minimizar los riesgos de las áreas afectadas tales como la presencia de suelos potencialmente contaminados o los riesgos de inundabilidad. Asimismo, se establece la obligación de contar con programas de restauración ambiental y paisajística en los que, se deberá restaurar la vegetación de ribera si fuera afectada. Finalmente, en la AU7 Etxezarreta y en el AU 10 Papelera, se contempla la creación de un bidegorri para potenciar la movilidad sostenible.

*3. Valoración del informe de sostenibilidad ambiental y de la evaluación ambiental estratégica ordinaria realizada.*

La resolución sobre la evaluación ambiental del segundo documento de aprobación inicial emitido por la Dirección de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas el 6 de febrero de 2017, establecía que, el documento 1.2 Evaluación Ambiental Estratégica de julio de 2016 que incluía, contaba con los apartados exigidos en el Decreto 211/2012. Sin embargo, añadía que, aunque contenía la mayor parte de los aspectos y análisis solicitados en el documento de referencia, mostraba también algunas carencias en aspectos concretos, los cuales pasaba a detallar en la parte final de la resolución para su subsanación.

El documento de aprobación provisional del PGOU ahora remitido incluye un nuevo documento 1.2 Evaluación Ambiental Estratégica de abril de 2017. Se ha analizado dicho documento para comprobar si su contenido ha subsanado las deficiencias que fueron puestas de relieve en la anterior resolución de la Dirección.

Tras este análisis, cabe señalar lo siguiente:

— Justificación de la capacidad residencial establecida en el PGOU. El documento de aprobación provisional supera ligeramente la oferta residencial propuesta en el «Documento de aprobación inicial II» que pase de 120 a 126 viviendas, pero mantiene las áreas urbanísticas afectadas. Esta oferta no se justifica en base a datos demográficos y de demanda como se demandaba en la resolución de la Dirección de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, sino basándose en las determinaciones establecidas en el planeamiento superior –Decreto 4/2016 de enero de modificación de las DOTs y PTP de Urola Costa–. Así, se aduce que, aunque la cantidad propuesta es mayor que las 100 viviendas establecidas en el PTP de Urola Costa, dado que, cuando este PTP se adapte al Decreto 4/2016 de enero de modificación de las DOT, tendrá que incrementar su oferta residencial hasta 172 viviendas, que es lo que establece dicho decreto para Aizarnazabal, se puede considerar asumible. Además, añade que debe tenerse en cuenta que el planeamiento vigente concretaba 121 nuevas viviendas, muchas de ellas coincidentes con las propuestas en el PGOU y, en su caso, ya previstas desde hace tiempo como en el caso del PERI de Zubialde, por lo que ese aumento respecto a lo establecido en el PTP de Urola Costa es razonable al no implicar nuevas clasificaciones de suelo sino una redefinición de lo ya clasificado.

— Criterios de sostenibilidad de los desarrollos residenciales. Al estar la ordenación pormenorizada de los dos ámbitos residenciales más significativos (AU2 Txantil Soroa y AU3 Odriozola) definida en el propio PGOU, no existirán planes de desarrollo en los que se pueda llevar a cabo el análisis de alternativas planteado por la Dirección de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas. En cuanto al orden de prioridad para la ejecución de los diferentes desarrollos, se ha establecido la prioridad en el artículo 36 –Régimen de formulación de proyectos para la ejecución de obras de urbanización–, del AU2 Txantil Soroa frente al resto de

lehenespen hori eralda daitekeela interes publikoko arrazoiak direla medio.

— Industria hedapenen ingurumen ebaluazioa. Guztiak dagoeneko abian diren jardueren hedapenak direla kontuan hartuta, Udalak ez du kokapen alternatiborik bilatu, eta dagozkien jardueren lursailen lursail mugakideetan kokatu besterik ez du egin. Proposatutako industria garapenaren aukera ere ez du justifikatu, eraginak jasandako jarduerek planteatutako hedapen beharrei erantzuten diela adierazteaz harago. Horiek eragindako inpaktuen ebaluazioari dagokionez, aztertutako ingurumen aldagaien artean –egoitza jarduketentzako erabilitakoekin bat datozenak– daude, besteak beste, ibilguekin eta erriberekin zerikusia dutenak, izan ere, interesdun habitatetako afekzioak, ur masak eta uholde arriskuaren hazkundea aztertzen dira. Azkenik, indarrean dagoen plan hidrologikoan ezarritako erretiroak eta baldintzak betetzeari dagokionez, hirigintza fitxa partikularretan jaso dira zentzu horretan URA Agentziak bere txostenetan ezarritako gidalerroak.

— Korridore ekologikoak. Baldintzatzaile horren eraikuntza erregimena eraldatu da, kendu egin da eraikin berriak egiteko debekua, eta ordeztu egin da «lurzoru urbanizaezinari dagokionarekin». Horrez gain, baldintzatzaile horren eraginpeko udal lurzoruaren gainazala murriztu egin da, eta orain EAEko korridore ekologikoen sarean zehaztutako indargetze eremua eta Urola ibaiaren ibilgua eta haren bazterrak hartzen ditu soilik. Ondorioz, ferra saguzar mediterraneoarentzako interes bereziko guneari eta Schreiber muskerrarentzako intereseko guneari lotutako fauna eremuak, bigarren hasierako onespen dokumentuan baldintzatzaile horrek babestuta zeudenak, inongo babesik gabe geratu dira behin behineko onespen dokumentuan, ez baita sortzen beste inongo baldintzatzaile espezifikorik horientzat, eta ez dira jada badagoen inongo baldintzatzailetan integratzen.

— Ikuskapen programa. Hiru fase bereizitan banatutako ikuskapen programa bat aurkeztu du:

* Espedienteak tramitatzean, HAPOkoak zehazki, egiaztatzeko bertan jasota daudela ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenak edo ingurumen organo eskudunak eta sektore administrazioek proposatutako babes neurriak, neurri zuzentzaileak eta neurri konpentsatzaileak. Kontrol horri zuzena irizten zaion arren, HAPOa onartu ondoren hirigintza eremu bakoitzean sortutako garapen plan eta proiektuetan HAPOan ezarritako prebentziozko neurriak eta babes neurriak barne hartu izana egiaztatzera hedatzearen falta sumatu da.

* HAPOtik eratorritako jarduketen obra fasean. Ez da zehaztu zein oinarri izango duen, baina, HAPOko Hirigintza Arau Orokorren dokumentuko Seigarren Idazpuruko –Ingurumenaren, paisaiaren eta naturaren babes arauak– 4. kapituluan, Zaintza programak kapituluan, hain zuzen, zehazten dira eraikuntza faseko kontrolak.

* Udal mugarteko ingurumen kalitatearen alderdi nabarmenen jarraipena, epe luzean. Zenbait jarraipen adierazle diseinatu dira; horien definizio bana eta Udalmap aplikazioak emandako balio berrienak eman dira. Hala ere, ez dira zehaztu adierazle horiek kalkulatzeko maiztasuna, kalkulu horietatik egingo diren txostenak eta jarraipen hori egiteko arduradunak.

Ikuskapen programa osatu egin behar den arren aurretik aipatutako alderdietan, iritzi da orokorrean HAPOaren ebaluazio zuzena egin dela, bertan jaso baitira egoitza alternatiben analisi bat, ingurumenaren diagnosi bat, egingo diren jarduketen inpaktu garrantzitsuenen balioespen bat eta dagozkion babes neurri eta neurri zuzentzaileen diseinu bat.

Ikertutako inpaktuen artean analisi bat jaso da, zehazteko garapen industrialetan eta egoitza garapenetan beteko ote

sectores. Aunque, esta priorización no es absoluta, ya que posteriormente se añade que la misma podrá modificarse atendiendo a razones de interés público.

— Evaluación ambiental de las ampliaciones industriales. Dado que todas son ampliaciones de actividades ya existentes, el ayuntamiento no ha buscado alternativas de localización, limitándose a ubicarlas en parcelas contiguas a las actividades correspondientes. Tampoco ha justificado la opción de desarrollo industrial propuesta, más allá de afirmar que responde a las necesidades de ampliación planteadas por las actividades afectadas. En cuanto a la evaluación de sus impactos, entre las variables ambientales analizadas –comunes con las utilizadas para las actuaciones residenciales–, se encuentran, entre otras, aquellas relacionadas con los cauces y sus riberas, ya que se analiza la afección sobre los hábitats de interés, las masas de agua y el aumento del riesgo de inundación. Finalmente, en lo que respecta al cumplimiento de los retiros y condiciones establecidas en el plan hidrológico vigente, en las fichas urbanísticas particulares, se han incluido las directrices establecidas en este sentido por la Agencia URA en sus informes.

— Corredores ecológicos. Se modifica el régimen de edificación de este condicionante, eliminando la prohibición de construcción de nuevas edificaciones y sustituyéndola por «el propio del suelo no urbanizable». Asimismo, se restringe la superficie del suelo municipal afectado por este condicionante que queda limitado al área de amortiguación definida en la Red de corredores ecológicos de la CAPV y el cauce del río de Urola y sus márgenes. En consecuencia, las áreas faunísticas asociadas al «Área de Interés especial para el murciélago mediterráneo de herradura» y la «Zona de interés para el lagarto verdinegro» que estaban protegidas por este condicionante en el 2.º documento de aprobación inicial quedan sin ningún tipo de protección en el de aprobación provisional, ya que tampoco se crea otro condicionante específico para las mismas ni se integran en ninguno existente.

— Programa de Supervisión. Presenta un programa de supervisión dividido en tres fases diferenciadas:

* Durante la tramitación de los expedientes, en concreto del PGOU, para comprobar la inclusión en el mismo de las medidas preventivas, correctoras y compensatorias propuestas en el ISA o por el órgano ambiental competente y las administraciones sectoriales. Aunque este control se considera correcto, se echa en falta que se extienda a la comprobación de la inclusión de las medidas preventivas y correctoras establecidas en el PGOU en los planes y proyectos de desarrollo que surjan en cada una de las áreas urbanísticas a partir de la aprobación del PGOU.

* Durante la fase de obras en las actuaciones derivadas del PGOU. No se concreta en qué consistirá, aunque, por otra parte, en el capítulo 4. Programas de Vigilancia, del Título Sexto: Normas de Protección Ambiental, Paisajística y Naturalística del Documento de Normas Urbanísticas Generales del PGOU, se detallan los controles durante la fase de construcción.

* Seguimiento a largo plazo de los aspectos más significativos de la calidad ambiental en el término municipal. Se diseñan una serie de indicadores de seguimiento para los que se proporciona una definición y el valor más reciente suministrado por la aplicación Udalmap. Sin embargo, no se definen ni la frecuencia con la que se calcularán estos indicadores, ni los informes que se elaborarán a partir de dichos cálculos, ni los responsables de este seguimiento.

A pesar de la necesidad de completar el programa de supervisión en los aspectos citados anteriormente, se considera que se ha producido, en líneas generales, una correcta evaluación del PGOU, con un análisis de las alternativas residenciales, un diagnóstico ambiental, una valoración de los impactos más relevantes de las actuaciones que se llevarán a cabo y un diseño de las correspondientes medidas protectoras y correctoras.

Entre los impactos estudiados, se ha incluido un análisis para determinar si en los desarrollos industriales y residencia-



EK\CV GAO-I-2017-08637

diren 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak, eta hainbat neurri proposatu dira HE3, HE4 eta HE6 eremuetako egoitza garapenetan kontuan izateko. Ikerketa akustikoak HE4 Zubialde eremuan bakarrik aurkitu ditu 213/2012 Dekretuko mugak gainditzen dituen datuak. Eremu hori GI-2633 errepidearen ondoan dago, eta haren antolamendu xehatua 1995ean onartutako plan berezi batetik eratorria da, ondorioz, 213/2012 Dekretuaren aurrekoa. Egiazko eraginkortasuna aztertu gabe, neurri zuzentzaile gisa proposatu da saihestea logelen fatxada errepidearen aurrean edo handik gertu kokatzea; horrek erraztu dezake gela horietarako barne espazioaren kalitate helburuak betetzea, baina ez kanpo espazioaren helburuak, eta horiek dira hirigintza garapen batean lehenik betearazten saiatu beharrekoak. Horrenbestez, 213/2012 Dekretuaren 43. eta 45. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, eremu horretan egingo diren urbanizazio eta eraikuntza prozesuak direla medio, eremu horretara soilik bideratutako analisi akustiko bat egin beharko da. Analisiak barne hartu beharko ditu neurri zuzentzaileen diseinu xehatuago bat, eta, azken horrekin batera, balioespen akustikoa, aztertzeko neurri horiek zeinen eraginkorrak diren ziurtatzen kanpo espazioan, eta, ezinezkoa balitz, barne espazioan Dekretuak xedatutako kalitate helburuak betetzen direla. Analisiari lotuta egongo da eremua babes akustiko bereziko gune deklaratzea, haren ondorioetatik erauz badaiteke ez direla beteko Dekretuan zehaztutako kalitate akustikoaren helburuak.

Horrez gain, nahiz eta udal mugartean bertan ez dagoen Natura 2000 sareko gunerik, Zumaiarekin duen mugatik 750 metrora «Urola ibaiadarra» KBEa dago. Horregatik, ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenak ebaluatu ditu HAPOak espazio natural horretan dituen ondorioak. Ondorioztatu da HAPOak ez duela inolako eragin zuzenik KBE hori babesteko helburuetan. Zeharkako eraginei dagokienez, estuarioko ekosistemaren afekzio posible bat ikusi da, Urolako trantsizio ur masaren egoera ekologikoaren afekzioaren ondorioz. Eragin horiek positiboak zein negatiboak izan daitezke, plan orokorrak aipatutako egoera ekologikoari zuzenean eragiten dioten proposamenak edo arauak jasotzen dituen ala ez. Zentzu horretan, hirigintza fitxetan ezarri da garapen berriek arazketa sistema bat ezarri beharko dutela, hondakin uren tratamendu egokia bermatzen duena, administrazio eskudunak saneamenduaren irtenbidea zehazten duen arte.

Azkenik, nahiz eta egoitza garapenentzat eta garapen industrialentzat analizatutako inpaktuen artean egin den Nekazaritza eta Basozaintzako LPSk nekazaritza balio handiko lurzoru deritzenen afekzioaren balioespena, berrikusi beharreko zenbait zehaztasun falta aurkitu dira ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenean. Horiek horrela, aurreko arau subsidiarioen aldean, HE3 Odriozola eremuan zabaldutako gainazala balio estrategiko handikoa da, baita HE10 Paper fabrika eremu osoa ere. Horrek guztiak areagotu egiten du planeko jarduketen eraginpeko azpikategoria horretako lurzoruaren azalera. Horrez gain, igarri da nekazaritzako sektoreak jasandako afekzioaren balioespenean falta dela, urbanizatuko diren balio estrategiko handiko lurzoruen azalera kontuan izateaz gain, analisi bat egitea zoru horietan garatuta dauden ustiapenen bideragarritasun ekonomikoak jasan dezakeen inpaktuari buruz, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSko I. eranskinaren nekazaritzako sektorearen ebaluaziorako protokoloan zehazten den moduan.

*4. Galdeketen emaitzaren balioespena eta horiek nola izan diren kontuan.*

Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 21. eta 22. artikuluei eta 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluari jarraikiz, Udalak HAPOaren bi hasierako onespen dokumentuei informazio publikoaren izapidea aplikatu zien 45 egunez, eta horien inguruko kontsulta egin zien erreferentziazko dokumentua igortzeko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzak aurretik kontsultatutako administrazioei eta entitateei. Gainera, HAPOaren memorian agertzen denez, bilerak egin zituen herri-

les se van a cumplir los objetivos de calidad acústica establecidos en el Decreto 213/2012 y se recomiendan una serie de medidas a tener en cuenta en los desarrollos residenciales en las áreas AU3, AU4 y AU6. El estudio acústico solo detecta incumplimiento de los límites del Decreto 213/2012 en el AU4 Zubialde, un área situada al lado de la carretera GI-2633, cuya ordenación pormenorizada procede de un Plan Especial aprobado en 1995 y, por tanto, anterior al Decreto 213/2012. Se propone como medida correctora, aunque sin valorar su efectividad real, evitar la localización de la fachada donde estén los dormitorios frente y en las cercanías de la carretera, lo que puede facilitar el cumplimiento de los objetivos de calidad en el espacio interior para dichas estancias pero, no los del espacio exterior, que son los primeros que se deben intentar cumplir en un desarrollo urbanístico. Por tanto, de acuerdo con lo establecido en los artículos 43 y 45 del Decreto 213/2012, con motivo de los procesos de urbanización y edificación que se lleven a cabo en dicho área, se deberá hacer un análisis acústico focalizado solo en este área, que incorpore un diseño de las medidas correctoras más detallado, acompañado de la valoración acústica de su efectividad en el aseguramiento del cumplimiento de los objetivos de calidad del Decreto en el ambiente exterior y, si no fuera posible, en el interior. Este análisis irá asociado a la declaración de Zona de Protección Acústica Especial, si de sus conclusiones se infiere que se incumplirán los objetivos de calidad acústica definidos en el Decreto.

Asimismo, aunque propiamente en el término municipal no existe ningún espacio de la Red Natura 2000, dado que en su límite con Zumaia, a 750 m se encuentra el ZEC «Ría del Urola», el ISA realiza la evaluación de las repercusiones del PGOU en dicho espacio natural. Se concluye que, el PGOU, no tiene ningún efecto directo sobre los objetivos de conservación de esta ZEC. En cuanto a los efectos indirectos, se aprecia una potencial afección al ecosistema estuarino como consecuencia de la afección al estado ecológico de la masa de agua de transición de Urola. Estos efectos pueden ser de carácter positivo o negativo, dependiendo de que el Plan General incluya propuestas o normativa que incida indirectamente en dicho estado ecológico. En este sentido, en las fichas urbanísticas, se establece que mientras se concreta la solución de saneamiento por la administración competente, los nuevos desarrollos deberán establecer un sistema de depuración que garantice un tratamiento adecuado de las aguas residuales.

Finalmente, aunque entre los impactos analizados para los desarrollos residenciales e industriales, se lleva a cabo la valoración de la afección sobre los suelos de Alto Valor Agrológico según el PTS Agroforestal, se encuentran algunas inexactitudes en el ISA que se deberían revisar. Así, en el AU3 Odriozola la superficie ampliada respecto a las NNSS anteriores es de Alto valor estratégico, lo mismo que la totalidad del AU10 Papelera, lo que aumenta la superficie de esta subcategoría de suelo afectada por las actuaciones del plan. Además, se echa en falta que en la valoración de la afección sobre el sector agrario, se tenga en cuenta no solo la superficie de los suelos de alto valor estratégico que se urbanizarán, sino también se haga un análisis del posible impacto sobre la viabilidad económica de las explotaciones que se estén desarrollado en dichos suelos, tal y como se establece en el Protocolo de evaluación de la afección sectorial agraria del anexo I del PTS Agroforestal.

*4. Valoración del resultado de las consultas y cómo estas se han tomado en consideración.*

En cumplimiento de los artículos 21 y 22 de la Ley 21/2013 de evaluación ambiental y el artículo 12 del Decreto 211/2012, el ayuntamiento sometió a los dos documentos de aprobación inicial del PGOU, durante 45 días, al trámite de información pública, así como de consulta a las administraciones y entidades, que habían sido anteriormente consultadas por la Dirección de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas para la emisión del documento de referencia. Además, según consta en la memoria del

tarrekin eta eragile partikularrekin etxebizitzaren eta jarduera ekonomikoen inguruan jarduteko.

Informazio publikoko lehen aldia amaitzerako 5 alegazio egin ziren, eta HAPOaren bigarren hasierako onespen dokumentuan jaso ziren, honela:

— HE2 Txantil Soroa –egun Apaizaetxe izena du– eremurako aurreikusitako etxebizitza kopurua areagotu zen, 48tik 60ra.

— Abian dauden instalazioei lotutako eremu industrialen hedapena erraztu zen, dela lurzoru berriak gehituz –HE10 Paper fabrika eta HE11 Odrinox–, dela indarrean dauden arau subsidiarioetan jada onartutakoa berrantolatuz –HE7 Etxezarreta eta HE8 Migsa–.

Informazio publikoko bigarren aldian bi alegazio aurkeztu ziren, eta behin behineko onespen dokumentuan txertatu ziren, honela:

— HE2 Txantil Soroa eremurako aurreikusitako eraikigarritasuna murriztu zen, 8.665 $m^2$ (t) ziren lurzoru gainean eta 5.206,90 $m^2$ (t) lurzoru azpian, eta 6.900 $m^2$ (t)-ra murriztu zen lurzoru gainean eta 5.166,10 $m^2$ (t)-ra lurzoru azpian. Hala ere, mantendu egin zen eremu horretarako aurreikusitako gehieneko etxebizitza kopurua. 60.

— HE9 Iraeta eremuan igo egin zen eraikin berrien gehieneko garaiera, 11 metrotik 12 metrora. Gainera, baimendu zen gehieneko eraikigarritasunaren % 20 bulegoetarako erabiltzea, 12 metroko gehieneko garaierarekin, baina IV/I profilarekin –eraikin berrietarako baimendutakoa baino handiagoa–.

Bere aldetik, eragindako administrazio publikoei egindako kontsultak honako erantzun hauek jaso zituen:

— Lehen hasierako onespen dokumentuari dagokionez: URA, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa sailak eta Kultura saila, IHOBE, Gipuzkoako Ur Partzuergoa, eta Foru Aldundi honetako Kultura, Gazteria eta Kirol departamentua eta Mugikortasun eta Bide Azpiegitura departamentua.

— Bigarren hasierako onespen dokumentuari dagokionez: URA, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa sailak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila, IHOBE, Gipuzkoako Ur Partzuergoa, eta Foru Aldundi honetako Mugikortasun eta Bide Azpiegitura departamentua.

Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko Kultura departamentuek, GFAko Mugikortasun eta Bide Azpiegitura departamentuak eta IHOBEk egindako txostenak gehienean aldekoak dira, dagozkien eskuduntza alorren inguruan bigarren hasierako onespen dokumentuan txertatutako zehaztapenei dagozkienez.

Horrez gain, jarraian zehazten den moduan, URA agentziak eta Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa sailak bigarren hasierako onespen dokumentuaren alde egin zuten alderdi askotan, baina hainbat xedapen ezarri zituzten, behin behineko onespen dokumentuan modu ezberdinean txertatu direnak. Hona:

— URA agentzia: HAPOak jabari publiko hidraulikoari eta haren babes eremuei dagozkien gidalerroak kartografian eta araudi orokorrean jasotzeko moduaren alde egin zuen. Araudi partikularrari dagokionez, HAPOaren erredaktoreek dagozkion hirigintza fitxetan txertatu dituzte, alde batetik, hondakin urak arazteko sistemak ezartzeko beharra, organo eskudunek sistema global bat garatzen ez duten bitartean, eta, bestetik, hainbat zehaztapen HE5, HE7 eta HE9 eremuek dituzten uholde arriskuei erantzuna emateko.

— Natura Ondare eta Klima Aldaketa departamentua: orokorrean proposatutako lurzoru urbanizaezinaren zonifikazioaren alde egin zuen, baina Taxus baccata espeziearen bizitoki den

PGOU, mantuvo reuniones, tanto con la ciudadanía en general, como con agentes particulares en relación a la vivienda y las actividades económicas.

El primer periodo de información pública acabó con 5 alegaciones que fueron incorporadas al segundo documento de aprobación inicial del PGOU como sigue:

— Se incrementó el número de viviendas propuestas para el AU2 Txantil-Soroa –inicialmente denominada Apaizaetxe– que pasaron de 48 a 60.

— Se facilitó la ampliación de áreas industriales vinculadas a plantas en funcionamiento, bien mediante la incorporación de nuevos suelos –AU10 Papelera y AU11 Odrinox–, bien mediante la reordenación de lo ya aprobado en las vigentes Normas Subsidiarias –AU7 Etxezarreta y AU8 Migsa–.

En el segundo periodo de información pública, se presentaron dos alegaciones que fueron incorporadas en el documento de aprobación provisional como sigue:

— Se disminuye la edificabilidad prevista para el AU2 Txantil-Soroa que pasa de 8.665 $m^2$ (t) sobre rasante y 5.206,90 $m^2$ (t) bajo rasante a 6.900 $m^2$ (t) sobre rasante y 5.166,10 $m^2$ (t) bajo rasante. Sin embargo, se mantiene el número máximo total de viviendas previstas para el área: 60.

— En el área AU9 Iraeta, se eleva la altura máxima de las nuevas edificaciones, que pasa de 11 a 12 metros. Además, se permite que el 20 % de la edificabilidad máxima se dedique a oficinas con una altura de 12 metros pero un perfil IV/I –mayor que el permitido para el resto de nuevas edificaciones–.

Por otra parte, la consulta a las administraciones públicas afectadas produjo las siguientes respuestas:

— Respecto al primer documento de aprobación inicial: URA, los departamentos de Medio Natural y Planificación Ambiental así como de Cultura del Gobierno Vasco, IHOBE, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, y los departamentos de Cultura, Juventud y Deportes así como de Movilidad e Infraestructuras Viarias de esta Diputación Foral.

— Respecto al segundo documento de aprobación inicial: URA, los departamentos de Medio Natural y Planificación Ambiental así como de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco, IHOBE, y el departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias de esta Diputación Foral.

Los informes emitidos por los departamentos de Cultura del Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa, el departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias de la DFG e IHOBE son mayormente favorables respecto a las determinaciones que se incorporan en el segundo documento de aprobación inicial en relación a sus respectivos ámbitos de competencia.

Por otra parte, tal y como se detalla a continuación, la Agencia Ura y el Departamento de Medio Natural y Planificación Ambiental del Gobierno Vasco informaron favorablemente el segundo documento de aprobación inicial en muchos aspectos, aunque establecieron también una serie de disposiciones que se han incorporado de forma desigual al documento de aprobación provisional. Así,

